

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarteak Bergara 1994, apirilak 29



Rwanda: amaitu gabeko misioa

Puri Iturbe antzuolarra, Afrika beltzetik etorri berria



GIARTZU

Gimnasioa

Bono Laskurain, 3 behea
☎ 76 35 71 BERGARA





GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa

BERGARA

San Juan Erreka. Elgetara bidea

Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54 25

Emotale Jauregia, 20.570 Bergara.
Tiroa eta faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:
Londun Elkarte
Masterrera, 13. 20.570 Bergara.
76 03 97

Zuzendaria:
Gorka Elorza.

Erredakzioa:
Gorka Azkarate, Eduardo Mendibil eta
Mikel Elkorobereibar.

Maketazioa:
Gorka Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:
Gorka Azkarate eta Gorka Elorza.
76 03 97

Kolaboratzaileak:
Gorka Angel Mikeo, Estepan Plazaola,
Miguel Angel Elkorobereibar, Juan Martin
Plazpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain,
Ane Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander
Bergasa, Mikel Lizarralde, Monika
Gastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa
Garcia, Asier Madinabeitia, Josune Inarra
eta Ane Miren Goenaga.

Kamikia eta marrazkiak:
Pablo Rodriguez, Gorka Ortega, Jon
Mendez, Jose Martin Ezenarro
eta Julian Ezenarro.

Portadako argazkia:
Marta Iturbe monja Rwandan.

Argazketa:
Mantzangorri Taldea.

Irudia: 3.500 ale.

Copyright:
BERRIGARA

Copyright: BERRIGARA
Lage gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599


BERRIGARA ez du bere gain hartzen
ezkizun adierazitako esanen eta iritzien
erantzukizunik.



Aldizkari honek
Bergarako Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura
sailaren laguntza jaso du

Z E R B E R R I D A ?

JOSE ANTONIO SANTANO *Gazteria eta Kirol Diputatua*

**- Zer eskeintzen du
Gaztemaniak!! pro-
gramak?**

- Bueno, hainbat udalen laguntzaz, kultura gazteei hurbiltzeko jarri da martxan eta zinea eta musika izango dira ardatz nagusiak. Zinean hiru ziklo izango dira: beldurrezko pelikulena, filme indijenak eta bideoarena. Musikan, bestalde, musika minoritarioa eta ohizko zirkuituetatik kanpo dagoena ekarri nahi dugu baina oraindik ere izenak aurreratzea nekeza da. Programak 14 milioi inguruko aurrekontua dauka eta helburu nagusia gazteen arazoetara hurbiltzea eta instituziook ematen dugun imajina serioarekin apurtzea



litzateke.

- Bergaran ziklo guzti horiek izango dira?

- Herri ezberdinetan egingo dira ziklo hauek eta oraindik fetxa eta toki guztiak zehazteke dauden arren, nekeza izango da herri batek bi ziklo izatea. Ikusi behar...

"Gure helburu nagusia kultura gazteei hurbiltzea litzateke"

I T U R R I O N E T I K

Pazkuetako musika programazioa Plazan eta Bideberrin

Udaleko Jai Batzordeak Pazkuetako musika programazioa osatu du dagoeneko. Bideberrin honako rock jaialdi hauek izango dira: ostiralean, hilak 20, Requiem eta zehaztu gabeko beste talde bat gaueko 11tan, larunbatean 11tan Fucking what!!, Daxka eta Australian Blonde taldeak izango dira eta astelehenean Bost axola eta Anestesia 11.30etan. Plazako dantzaldiak, berriz, Gau bela ostiralean, Basakabi larunbatean, Txatanuga Funtz Band domekan, Nueva Alaska astelehenean eta asteartean Egan.

ESAN DUTE

"Konstituzioa inposatu digute eta bistan da gure herria eta Estatu espainiarraren artean ez dela inoiz akordio-konpromezurik izan; hau da hain zuzen ere gaur egun bizi dugun biolentziarako egoeraren kausa eta ondorioa"

JOSE LUIS LOIDI
Herrera de la
Manchan preso
EGIN

"Banestoren erosketak epe erdi eta luzera ondorioak izango ditu: errekuperazio ekonomikoa eta partizipazio industrialaren bilakera erabakiorrak izango dira. Banesto hartzen duen taldearen esfortzua ez da nolana hikoia izango"

MARI KARMEN GALLASTEGI
Teoria Ekonomikoko
Katedratikoa
EL CORREO

"Polita da *Picasso* koadroa Gernikarako eskatzea eta gainera herrien errespetuen alde egin dezakegun gauza bakarra da"


JESUS MARI LAZKANO
Margolaria
EGIN

LA LISTA DE SCHINDLER
 Ostirala: 22.30.
 Larunbata: 17.00, 22.00.
 Igandea: 17.00, 22.00.
 Astelehena: 19.30.
 Asteartea: 19.30 (Ikuslearen Eguna).

STALLONE SNIPES
 POLICIA MAS DEUTABADO
 EL CRIMINAL MAS DEUTABADO

DEMOLITION MAN
 Igandea: 11.30.

DRACULA
 Osteguna: 20.00.



Zinea

▼▼ **Steven**

Spielbergek 7 *Oscar* lortu ditu bere azken filmearekin. Judutarren Holocaustoa gogoratu, efektu espezialik gabe eta zuribeltzean egin, bere filmerik errealistena. Besteak beste, filme, zuzendarri eta musika one-naren *Oscarrak* eraman ditu. 3 ordu eta laurden.

▼▼ **Sylvester Stallone**

XXI. mendeko poliziarik arriskutsuena da eta **Wesley Snipes**, berriz, gaizkilerik beldurgarriena. Ez du ematen elkarrekin ondo konponduko direnik eta indartsuago nor den jakiteko borroka amaigabe bat eskeiniko digute.

▼▼ Beldurrezko filmeen zikloarekin jarraituz, **Francis Ford Coppola**k *Dracula* pertsonaiaren ikuspegi berri bat ematen digu bere azken filmean, izugarritzko ambientazioarekin. **Gary Oldman**, **Winona Ryder**, **Anthony Hopkins** eta **Keanu Reeves**ekin.



Deiak

▼ **Argazkiak.**

Bergara Hiria Argazki Lehiaketako lanak astelehenetik aurrera Kultur Etxean ikusgai.

▼ **Saltsa ikastaroa.**

Maiatzaren 2tik 6ra Bergaran. Izen-ematea Kirol Zerbitzuan.

▼ **Kintadak.**

1958ko kintoen anaiarteko eguna maiatzaren 7an. Izen-ematea Kortazar edo Bionan.

▼ **Argazkiak.**

Txakur Leren Lasterketako argazkiak Nahikarin.

▼ **Herri Urrats.**

Maiatzaren 8an Senperen. Irteera goizeko 8etan izango da eta buelta 19.00etan. Izen-emateko Euskara Zerbitzuan edota Aranzadi Ikastolan maiatzaren 5a baino lehen.



Ogia

▼ **Igandea 1:** Konde Panad.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 30:** Guallar/Corcuera.
- ▼ **Igandea 1:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 2:** Estella.
- ▼ **Asteartea 3:** Mozos.
- ▼ **Asteazkena 4:** Camacho.
- ▼ **Osteguna 5:** Puy.
- ▼ **Ostirala 6:** Guallar.

PINTURAS BERGARA

Aranerreaka, 32 behea. BERGARA.
 Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• **INDUSTRIARAKO PINTURAK** • **APAINKETARAKO PINTURAK** • **GARBIKETAK** • **ERROTULOAK** • **Etab...**

Taun-Taun txotxongilo taldeak "Makinatu" bere azken lanaren aurkezpena eskeiniko digu datorren ostiral eta larunbatean, maiatzak 6 eta 7, 10.30etan Mariaren Lagundian. Talde bergararren bosgarren lanak, aurreko lanekin konparatuz, nahiko nobedade dakarkigu: "testurik gabeko istorioa da eta nagusiki imajinetan oinarritzen dela esango genuke. Alde hortatik eronka bat da guretzat. Gainera manipulazio teknika eta estilo ezberdinak erabili ditugu. Gebien bat intuizioetan oinarritu gara gidoia lantzerakoan (bidean lan asko gelditu da) eta guztiok hartu dugu parte, aspektu ezberdinei buruzko geure iritzia azaltzeko aukera izan dugu eta aurrekoetan baino lan konplikatuagoa izan da" Taun-Taunekoen eritziz.

"Makinatu"n joku bat proposatzen dute: "Mundu hipotetiko eta fantastiko bat aurkezten da. Argazki kamara zahar batek atrakzio parke batean ateratako argazkiak ikus daitezke eta aktore-manipuladoreak kamara barruko langileak ginateke, gure artean ere er-

Maiatzaren 6 eta 7an "Makinatu"

TAUN-TAUN

Txotxongilo taldearen azken lanaren aurkezpena



Xabi Labaien, Iñaki Mata, Karmele Pérez, Itxaso Azkarate, Karlos Odriozola, Pili García eta Miren Urkijo.

lazio-joku bat dago. Imajinekin jokatzeko dugu eta amodio iragankorreko istorioak aurkezten dira, guztira 15 pertsonaia inguru azaltzen direlarik. Eszenarioa argazki makina zahar baten auspoadituzateke eta zoomaren efektuaren antzera, gauzak urrundu eta burbil-

duz doaz. Dena den, ez dugu mezurik igorri nahi, ez da lan didaktiko bat. Bakoitzak ondorioak atera ditzala".


Oraingo honetan bost dira aktore manipuladoreak: Itxaso Azkarate, Pili García, Karlos Odriozola, Karmele Pérez eta Iñaki Mata. Horrez gain, Nartxi Azkargorta (txotxongiloen egilea eta manipulazioaren zuzendaritza), Mikel Ibarzabal (konstrukzioaren laguntzailea), Xabier Labaien (musika), Santi Ezkurra (argi-

ak), Julen Iñarra (esenografia), Pello Alberdi eta Riki Azkargorta (dekoratuak), Miren Urkijo (zuzendaritza) eta Alberto Iñurrietak (produzioa) parte hartzen dute.

Horrez gain, ikusleen eritzia ere ezagutu nahi dute Taun-Taunekok: "bai, aurkezpenaren ondoren, jasotako erantzunaren arabera, obra honekin lanean jarraitzeko asmoa daukagu". Sarrerak 500 eta 300 pta. tan (Gazte Txartelarekin) jarriko dira salgai.

Argazki zahar baten bidez, mundu hipotetiko eta fantastiko bat aurkezten digute Taun-Taun-ekoek lan honetan

BERGARA BOLTSAK



- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

Emakumeei buruz

Pasa den apirilaren 8an kaleratutako BERRIGARAn ikastetxei dagokien orrialdean neska talde batek sinatzen duen artikuluari buruz hitzegin nahi dugu, hain zuzen ere, emakumeok kirol munduan jasaten dugun zapalkuntza salatzeraz bideratua zegoen idazlanari buruz.

Egia da emakumeok berdintasunerantz daramagun borroka honi esker zenbait arlotan aurrerapausu nabariak lortu ditugula. Aurrerapausuak, ordea, ez du berdintasuna esan nahi, horra hor bestela lan mundua edo kirolen arloa; gaur egun emakumeon presentzia ukazina bada ere, jasaten dugun zapalkuntza egoera oraindik ere nabarmenagoa da eta.

Berdintasuna ez da lan edo kirol munduan soilik lortu beharreko eskubidea, biziaren arlo gutzietan, eta gizartearen maila denetan lortu beharreko zerbait baizik. Urteak daramatzagu hortan eta ez "Martxoak 8"ak bakarrik. Emakumeon borroka eguneroko konpromezua eskatzen bait du, konstantziarekin eta borrokarekin bakarrik lortuko ditugulako.

"Martxoaren 8" a egun sinboliko bat besterik ez da. Eta emakumeok gure eskubideen aldarrikapena egun hortara mugatzen ba dugu ezer lortuko ez dugula argi daukagu. Beraz, ba, urteko gainontzeko egunak ere "Martxoak 8" bilaka ditzagun!

BERGARAKO EGIZAN

Ez dago aitzakiarik

Goiz hartan desalojatu zuten aspalditik geurea izan genuen Gaztetxea, gazteak oso haserre geunden eta zuzenean Udaletxera jo genuen bertan herriaren alkate deritzon Bitoriano aurkituko genuelakoan eta baita hala izan ere. Lehenengo aldian "herriko polizia" deritzonak atera gintuen bertatik eta ez modu onean. "Existimos porque insistimos" esaldiarekin bat egin genuen momentu hartan eta bigarren aldiz Udaletxera (suposatzen da herriarena dena) jo genuen eta alkatearen bulegoan tropelean sartu ginen 40 bat pertsona, kanpoan 250 bat gazte aurkitzen zirelarik. Bertan Bitoriano ez zuela poliziaren indar errepresiboa Udaletxe barruan somatu esan zigun, ez zela horretaz arduratzen eta Udaltzaingoaren informea (manipulatu) eskatuko zuela. Hau ez genuen sinistu, alkatearen despatxoak kristalera bat bait dauka (miopea ote da?).

Bertan ordubete inguru egon ginen elkarri trapu zikinak botaz, tentsio ugari eta nerbioak agirian zebiltzala (guztion partetik). Alkateak, lehenengo aldiz eta aurrez aurre, gazteon eritzi, kritika eta desprezioa entzun behar izan zuen.

Gaztediaren mobidaz pasatu du. Herriaren aurrean eskuak eta musua garbitu ditu eta bitartean epaile eta apaizekin tejemanejetan ibili da, bertako gazteak kalean ikusteko desiatzen. Bi aurpegi baino gehiago dituen pertsona bat, ez al da zinikoa?

Udaletxetik ostiaka aterata beraren mutur aurrean. Hori ukatzen duen perso-

na bat ez ote da gezurteroa?

Beraien politika barnean mugitzen ez diren pertsonak marginatu eta zapaltzen dituen pertsona bat, ez ote da faszista?

Hau dena eta gehiago, zeren "gure" alkate inteligente eta sabioa ere ez zen ixilik egon, beraren ahotik ere irten zen "lotsagabe" hitza, bertan zegoen pertsona bati zuzendua.

Honekin zera argitu nahi dugu, alkatez 7 pertsona denuntziatu zituen epaitegian intsultuengatik, bertan deklaratzera joan ginelarik. Orain dela gutxi alkateak akusazio partikularra erretiratu du, noski jakinean egonda ministerio fiskalak aurrera eramango zuela akusazioa. Desde luego, tontoa ez da, ez!!

Urtebeteko arrestoa eta 100.000 pztako isuna eskatzen die bi pertsonari (fiskalak) atezedenteak ez daukatenez libre geldituko dira baina kartzelan dagoen pertsona bati hiru urteko zigorra eta 250.000 pztako isuna eskatzen diote. Guri pertsonalki isunak ez digu ardura, baina, bai kartzelan dagoen lagun horrena denboratxo luze bat pasa beharko duelako lotuta kartzelan tontokeria batengatik. "Gure" alkate sabio eta inteligenteari ez dio buruhausterik sortuko sistema honetan integratzerik nahi ez dugun herriko bizilagunak harresien artean edukitzezik.

Bukatzeko, juicio bat izango dugu eta guri ezartzen zaigun delitoei insulto hauek esatea omen da: ziniko, faszista, lotsabako, gezurtero.

BERGARAKO GAZTE ASANBLADA

Tiira biraka



JOSE MARTIN EZENARRO



◆ **Ipintza Institutua**

1994/95 ikasturteari begira Ipintza Institutuak duen hezkuntza eskeintza argitzeko bilera izango da astelehenean, maiatzak 2, arratsaldeko 7etan Zentru Aretoan.

◆ **Elorregiko jaiak**

San Prudentzian gaur, gaueko 10etan, IV. Alkartasuna Tute eta Mus Txapelketa jokatu da. Bihar larunbata ordubetetan pelota partiduak izango dira, ordubietan auzo bazkaria eta rantxerak *Los Chalapa* taldearekin eta 10etan erromeria. Igandean, Meza Santua 11tan eta ondoren beteranoen pelota txapelketako finalak.

◆ **Errepidea itxi**

Elosu eta Azkoitiaren arteko errepidea itxita izango da trafikora datorren maiatzaren 13ra arte, bertan egin beharreko hobekuntza obrak direla eta.



Igandean, meza ostean, Jubilatuetako abesbatzaren emanaldia izango da.

Labegaraietako jaiak prest dira

Txirrindularitza lasterketa, rock kontzertua...

Gaur, arratsaldeko 8etan, etxaflero jaurtiketa eta kanpai hotsekin emango zaie hasiera aurtengo Labegaraietako jaiiei. Ondoren poteo popularra egingo da eta 10etan Josu eta Jokin tritilariek alaitutako auzo afaria.


Bihar larunbata eguerdiko 12etarako marrazki lehiaketa iragarrita dago, 4retan Labegaraietako

XXXII. Txirrindulari lasterketa izango da, ordu berean mus txapelketa (izen-ematea ordu lehenago itxiko da Zabala tabernan); 5etan, eta eguraldiak laguntzen badu behintzat, tirolina jeitsiera Kiroldegian; 6etan umeentzako jolasak eta buruhaundiak Kiroldegian bertan; 8etan poteo popularra eta gaueko 11etan rock jaialdia Plate-

ro y tú, Eskixu eta Iskanbila taldeekin.

Igandean, maiatzak 1, 10etan txistulariekin di-na, 11.30etan Meza Nagusia Musika Eskolako metal zazpikotearekin eta jarraian Jubilatuetako Abesbatzaren emanaldia. Ordubetetan salda eta txorizoa, herri-jolasak eta dantzariak eta, 14.30etan jaien amaiera etxafleroen jaurtiketarekin.

KOXKA



- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Boda eta jaietarako enkarguak

Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

AZPEITXI

Aranerrika, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

BERGARA

Kiroldegiko Taberna



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

◆ EAJren oharra

Datorren ostegunean, hilak 5, EAJren Ez Ohizko Batzarra egingo da Batzokiko Aretoan arratsaldeko 8^o erdietan. Alderdikide guztiei Batzarrera joateko dei egiten zaie.

◆ Udal Euskaltegiaren X. urteurrena

Udal Euskaltegiak bere X. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi iragarri ditu. Horrela, maiatzaren 25ean, asteazkena, arratsaldeko 7etan, Ruper Ordorikaren emanaldia izango da Zabalotegiko aretoan. Ostegunean, hilak 26, In fraganti taldearen "*Hala bazan ez bazan sar dadila...*" antzezlan izango da eta, anaitzeko, hilaren 27an Imuntzo eta Ritxar trikitilariak alaitutako afari jaia San Migel Patronatoko frontoian.

◆ Julian Bernalen aldeko zozketa

Gaixotasun bategatik bi hankak galdu dituen Julian Bernalen aldeko zozketa maiatzaren 28ko loteriarekin batera egingo da, eta ez apirilaren 28koarekin, hasiera batean argitaratu genuen bezala. 2 pertsonen-dako Teneriferako bidaia bat eta Xabier De Zeriores eskultura bat zozketatuko dira.



Idolazek euskal abizenak erdal grafiaz idatzita dituztenei zuzendu nahi da.

Euskal grafia karnetetan

Idolaz Antzuolako euskera elkartearen eskeintza martxan

Idolaz Antzuolako euskeraren aldeko elkarteak euskal abizenak erdal grafiaz idatzita dituzten herritarrei zuzendutako kanpaina martxan jarri du. Interesatuek N.A.N. aren fotokopia eta telefono zenbakia utzi beharko dute Udaltexean edota liburutegian maiatzaren 11 baino lehen eta Idolaz, berriz, Euskaltzaindiari abizenaren izaera euskalduna ziurtatzen duen agiria, eta erroldatze eta jaiotza agiriak eskatzeaz arduratuko da.

Jarraian eskaera aurkezten duten guztiei dei egingo zaie Madrilerara bialdu beharreko instantzia bi

testigurekin batera sinatu dezaten eta handik hilabete batzutura Madriletik erantzuna jasoko da, euskal abizenak modu horretan ofizial bihurtuko direlarik. Idolazek emandako datuen arabera, elkar-terko 142 bazkideetatik % 40ari erdal grafiaz azaltzen zaizkio idatzita bere izen-deiturak Nortasun Agiri Nazionalean.

Amaiatzeko esan Idolaz Kultur Taldeak datorren maiatzaren 15erako bertso afari bat iragarri duela, egun horretan bertso-paper lehiaketaren sari banaketa egingo delarik.

ETXAGI

Jatetxea
Afariak-Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak-Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

FANCY

GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINZA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!**

Mekolalde

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A
U
T
O
A
K

KIZKUR



Ileapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

Baraualdia intsumisoen alde

Astebukaeran Miguel Altuna Institutuan

Aurreko astean Josu Aramendi bergarar intsumisoaren kontrako epaiketan, Aramendik bere kasua epaitzen zuen tribunalaren gaitasuna errefusatu eta epaitegitik alde egin zuen. Kakitzat kolektibo antimilitaristaren estratejiari jarraituz, auzia pendiente duten bergarar intsumisoak ez dira aurkeztuko edota Aramendik bezala ez dute tribunalearre konozituko. Neurri honetara heltzeko intsumisoek ustezko delitu berarentzat sententzia ezberdinak ematen direla eta zigorrak aurre-

tik erabakita daudela adierazi dute. Era berean, ez dute uste deliturik egin dutenik eta beraz ez ditu tribunal batek epaitu behar. Azkenik arazo honen soluzioa epaitegietan baino politikoen esku dagoela esaten dute.

Bestalde, Joxe Lazkanori bezala, Miguel Albenizi urtebeteko kartzela zigorra ezarri diote.

Bihar larunbata manifestazio nazionala egingo da arratsaldeko 7etan Iruñeko kartzelatik hasita eta intsumisoen gose grebaren amaierarekin koinzidituz. Bergarako Objeto



BOTAKoek eginiko protesta ekitaldi bat.

Talde Antimilitaristak, intsumiso presoek laguntza adierazteko, itxialdia eta baraua egingo du gaur ostirala 7etatik aurrera Miguel Altuna

Institutuan. Itxialdia igandean arratsaldeko 5etan amaituko da, ordu bete beranduago, inguruko herrietatik, kotxe karabana egingo delarik.



HEZKUNTZ ESKAINTZA

Miguel ALTUNA (ELEMENTALA)

institutua


BERGARA

AURREINSKRIPZIOA: Maiatzaren 4tik 18ra.

ARGIBIDEAK: Ibargarai, 1 ☎ 76 24 91 / 76 38 40 ORDUTEGIA: 9.00-13.00

- REM (Batxilergo orokorra)
- GOI MAILAKO BATXILERGOAK
 - BTI (Batxilergo Tekniko Industrial)
 - BAG (Batxilñergo Administratiboa)
- L.H. II (Lanbide Heziketa II)
 - Administratiboa
 - Elektriko-Elektronikoa
 - Mekanikoa
- MODULO PRO ESIONALAK III
 - Mekanika
 - Entrepresen administratiboa

GIZARTE SOLIDARIOA ERAIKI



**Jabier LARRAÑAGA
ELA**

"Maiatzaren lehena jaigiroan ospatzeko ez dugu arrazoi haundirik. Egun berezi honetan ikurriñari hiru krespoi beltz ezarriko genizkio: bat % 23ko langabezia gogorarazteko, bigarre-

na lan erreformaren ohorez eta hirugarrena gure pentsio eta gizarte babesen orogarri.

Kapitala, gero eta harroago daukagu eta arrazoi ekonomiko eta lehiakortasunaren ize-
nean, gaintituak uste genituen esplotazio mailak bideratzeko baldintzak ari dira sortzen.

Euskal Herriko langileok geure hitzarmen propioak negoziatzeko eskubidearen alde borrokatu behar dugu. INEMen transferentzia aldarrikatuz".

**INDUSTRIALIZAZIOA, LANA,
ELKARTASUNA**

"Industriaren egoera larriari aurre egiteko LABek hiru elementu funtsezko planteatzen ditu: berrindustrialiazioa, lan egiteko eskubidea edonorentzat eta soberania ekonomiko eta soziala, Euskal langileek euren etorkizuna erabaki ahal izateko. Baina helburu horiek lortzeko ezinbestekoa da borroka eta mobilizazioa Madrilgo eta Gasteizko gobernuek bultzatzen duten politika neoliberal-

la gelditzeko. Politika horrek desindustrializazioa, langabezia eta marginazio soziala ekarri baitu".



**Lurdes AIERBE
LAB**

Maiatzak 1

Langileen eskubideak aldarrikatzeko eguna izan da beti Maiatzaren Lehena eta aurten ere horixe azpimarratu nahi izan dute sindikatu guztiek. Krisi ekonomikoa, langabezia..., egoera ez da txantxetan ibiltzeko modukoa, eta aurten ere kalea hartuko dute langileek.

ELA eta LABek, alde batetik, eta CCOO eta UGTk, bestetik, deialdi bateratuak egin dituzte. Lehenengoek Hegoaldeko lau hiriburuetan eta Tuteran konbokatu dituzte manifestazioak eta CCOO eta UGTk, berriz, Donostia, Bilbo eta Gasteizen.


langileak protagonista

ENPLEGUA ETA LAN ESKUBIDEA

"Aurtengo maiatzaren 1ean ez da jai girorik egongo, egoera larria baita. Gure erreibindikaziorik nagusia Gonzalezen Gobernuak aprobatu nahi duen Lan

Erreforma atzera botatzea da. Estatuan 3,5 milioi langile daude lan-gabezia eta horietatik gehienak gazteak eta emakumeak dira.

Politika industrialia aldatu beharra dago orain ez baitu enplegurik sortzen eta Gobernuak hartutako neurriekin Gizarte Segurantzza eta pentsio sistema kolokan jarriko dira deskapitalizazioaren bidez".



**Juan Jose AZKARATE
CCOO**

ENPLEGUAREN ALDE

"Espainiako Gobernuak Lan Erreforma-
rekin gizartearen aurkako neurriak hartu ditu eta aurten maiatzaren 1ak jai giroa erabat galdu du. Lan Erreforma INEMean mozketak, kontratu zaborrak, kanporatze librea eta mugikortasun geografikoa dakar. Gobernuak sindikatuei ez digute kasorik egin eta eskatzen dugu Erreforma berriz negoziatzea. Uste dugu bi aldeek zerbait eman behar dutela eta ezin dela izan orain arte bezala langileen



**Miguel TOLA
UGT**

aurkako neurriak hartzea bakarrik. Gainera neurri berriei ez da enplegu berririk sortu.



BERGARAKO

OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) ☎ 76 43 29
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 90 81 09 30 - Koldo Eleizalde 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo, 4 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo, 4 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale, 1 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- MARMOL Pablo - Simon Arrieta, 3 2.B. ☎ 76 38 54

HAGIN KLINIKA:

- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta, 6 2. (Lehen notaria zegoen tokian). ☎ 76 05 77

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Iruñe - Telesforo Aranzadi, 1 2. ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain, 5 2. E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain 3, behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka, 7 3. A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain, 3 1.B. ☎ 76 37 50

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotzizitatea) - S. Arrieta, 3 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin plaza, 2 1. ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, pskimotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

Purita Iturbe monja Dominikoa

Rwandatik bueltan

Purita Iturbe monja antzuolarra (Iruñeako Jarauta kaleko Dominiketako) ostegunean heldu zen Rwandatik.

Azkenengo 15 urteak han eman ditu, behartsuei laguntzen, eta berak azaldu digunez hango egoera jasanezina zela eta bueltatu behar izan dira: "Kigalin bizi ginen 4 erlijiosa eta apirilaren 6an hasi ziren bonbardeaketak baina informazioak ez ziren batere argiak; goizeko 4rak aldera Rwanda eta Burundiko presidentek, Burundiko bi ministro, idazkaria eta frantsez tripulazioa kiskalduta hil zirela zabaldu zen. Etengabeko bonbardeoak eta tiroak izan ziren Guardia Presidentziala eta Rwandako Frente Patriotikoaren (etorritako rebeldeak) artean eta Armada etxez

etxe zebilen, hau edo beste eramaten, jendea biltzen, etxeetan lapurretan... Leihotik ere misilak pasatzen ikusten genituen. Ondoren, nazioarte-

ko irrati baten bitartez sarraskien berri izan genuen. Han bi arraza nagusi dira: tutsiak eta jutua (pigmeoei ez zaiztako ia kontutan hartzen), eta bien arteko konfliktoa aspalditik dator. Alemanak izan ziren lehen kolonizatzaileak baina II. Gerrate Mundialaren ondoren beljarrak heldu ziren eta 1962an independentzia lortu eta lehen hauteskundeak egin ziren; presidente jutua aukeratu

"Bonbardeaketak hasi zirenean leihotik ere misilak ikusten genituen"



Purita Iturbe antzuolarrak 15 urte eman ditu Rwandan behartsuei laguntzen.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

AGENTZIA:
J. ELKORO

lbargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



UNIBER

HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

eta tutsiak alde egin zuten. Orain tutsiak bueltatu dira boterea berreskuratzeko asmoz".

Rwandatik irteera ez zen batere eroso gertatu; "gure ondoko frantsez monja batzuekin elkartu ginen eta, ondoren, belgiarren bitartez Bruselaseraino eramán gintuzten hainbat eskala egin ondoren. Bruselasera heldu eta han zegoen espainiar enbaxadorea banderarekin gure zain. Oso ondo portatu ziren gurekin eta Bilborako abioi pasájea lortu zigten".

Purita Iturbe bueltatzeko prest dagó "antzular eta bergarar gazteei dei bat luzatu nabi diet, lanerako beso gazteak eta bibotz oneko jendea behar dugu. Rwandarrek pakea nabi dute baina alde guztietan

daude extremistak eta ez dakit nork manipulaten dituen. Eta datu bat; goseak bizi diren herrialde guztiak armaz josita daude eta ez dakit nork bidaltzen dizkien. Han jendea nekazaritzatik bizi da batipat eta behar-tsuei laguntzeko gure zentrua Kigalitik 30 bat kilometrora zegoen. Carritasen laguntzari esker, guztiak hartzen genituen eta ni emakumeen promozioaz arduratzen nintzen".

Azken urteotako lana bertan behera geratu da, "pena bat da Rwandak aurrerapen baundia egin baitu azken urteetan. Aste honetan bertan etortzeko diren gipuzkoarrekin biltzeko gogoá daukat. Miseria gorrian bizi zen jende asko zegoen, eta beldur naiz ez ote ziren guztiak hilko". ■

Rwandarrei erlagintza erakusten

Izaskun Soraluze Udál Euskaltegiko irakasle elgoibartarra Rwandan izan da bere senarrarekin batera bertakoei erlagintza modernoa erakusten. Denbora librean Izaskunek turismoa egiteko aukera ere izan du eta bideoan hartu ditu bertako irudiak. Orain, zoritxarrez, gerra dela eta, Rwandako irudiak oso kotizatuak dira komunikabideetan eta Izaskunek hartutako irudiak ETBn ikusi ahal izan dira. Horrezaz gain harremanatan daude telebista kate pribatu batekin irudiak saltzeko asmoz. Hortik

ateratzen duten dirua Rwandan dauden misiolari-entzat izango litzateke.




Izaskun Soraluze elgoibartarrak Bergarako Udál Euskaltegian egiten du lan.

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

EZAGUTU EZAZU ZURE AURPEGIA


INTÉGRÉEren BISAJISMO PROFESIONALAREN BIDEZ

Ur eta jaboiarekin



Zure aurpegikera guztien artean aukera ezazu erakargarriena. Bisajismoaren profesional batek bakarrik erakuts diezazuke zeure burua makilatzeke modurik egokiena.

Borondate onarekin



Roberto Bonorik zure edertasuna nabarmenduko duten artisten eskola sortu du. Harrituta geratuko zara bere aholkuekin.

Bisajistaren aholkuekin



Gure "bisajista profesionalak" zure aurpegiari ondoen datorkion makilajea ematen erakutsiko dizu eta zeuk nahi adina aldiz errepikatu ahal izango duzu. Horretarako, LILURA EDERTZE INSTITUTUAK MAKILAJERAKO EGUNAK antolatzen ditu. Zatoz eta ez zara damutuko!

Hurrengo makilaje ikastaroa: maiatzaren 7an. Hartu ezazu txanda 76 31 71 telefonora deituz edo Bidekurutzeta kalea 7 1.ra etorriaz. Prezioa: 5.000 pzta.

MERKATU BERRIKO

Victoriano Gallastegi alkatea merkatuko komertziantekin bildu zen aurreko astean, dendariei azoka berriko postuak adjudikatzeneko kontraofertaren bat aurkeztu dezaten eskatuz. Bergarako alkatea oferta horren zai dago bi aldeak akordio batera irits daitezkeen jakiteko. Astelehenean bidali dezakete merkatuko 7 komertziantek beren eskaintza baina beren ordezkarietako batek atzo, osteguna, BERRIGARARI adierazi zionez, *"oraindik guztiz zehaztuta ez dagoen arren, ez dut uste asko aldatu denik, aurrekoaren antzerakoa izango da"*.

Gogoratu behar da komertziantek merkatuan hainbat hobekuntza egitea eta postu bakoitzeko 3 milioi eskaini zutela bere garaian. Udalak, aldiz, 4 milioi eskatzen ditu postu bakoitzeko.

Honekin lotuta, Victoriano Gallastegi alkateak azoka berriko kostuei buruzko zehaztasunak eman dizkio BERRIGARARI: aldameneko koardroan azaltzen ditugu, Merkatu berriari buruz Udalak emandako datuak nagusienak.

dirukontuak bueltaka

AZOKAREN KOSTUA GUZTIRA.	299.695.459
• HASIERAKO ADJUDIKAZIOA.	218.063.814
- Dragados y construcciones S.A. (91ko apirilean adjudikatua).	195.260.262
- Ejekuzioa, proiektuari lotzearen.	22.803.552
• ADJUDIKAZIOAN SARTUTA EZ ZEUDEN PARTIDAK.	81.631.645
- Fatxadan harri naturala jartzea.	21.811.018
- Zorua, komunak eta sotoaren banaketa, etab.	14.895.758
- Garajeak, Katabiako bizilaguntzat.	9.788.074
- Postuetako eta pasiloetako lurra inpermeabilizatzea.	6.607.149
- Arkitektoaren lan-saria.	4.685.706
- Aparejadorearen lan-saria.	4.098.391
- Dorrearen teilatuaren pisua arintzeko gastua.	3.894.046
- Iberdrola. Transformazio Zentrua.	3.591.750
- Beste batzuk.	12.259.753

AZOKAREN KOSTUTIK DESKONTATU DENA.	122.746.119
- Eusko Jaurlaritzaren subentzioa.	30.380.000
- Katabiako bizilagunen garajeen urbanizazioa.	10.301.263
- Fatxadako harria.	21.811.018
- Azoka zaharraren salmenta, zenbatekoa 92-12-3ra eguneratuz.	60.253.838

KOSTU GUZTIA - DESKONTATUTAKOA.	176.949.340
--	--------------------

POSTUEN KOSTUA (26 postu):

• 26 POSTUEK AZOKAREN AZALERAREN % 60,61 HARTZEN DUTENEZ: 0,6061 x 176.949.340 =	107.248.995
---	--------------------

POSTU BAKOITZAREN KOSTUA: 107.248.995 / 26 =	4.124.961
---	------------------

PLENOAK ONARTUTAKOA:

- Postu bategatik.	4.000.000
- Bigarren postuagatik	3.800.000
- Hirugarren postuagatik	3.700.000

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8 Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

GALLASTEGI

Jostundegia

mahoizko lanerako jantziak


San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

BERGARAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

ESKOLAURRETIK UNIBERTSITATE EDOTA LANBIDE MUNDURA
ARTEKO ESKAINTZA OSOA (2-19 urte)



SAN MARTIN DE AGIRRE
ESKOLAURREA eta OHO (EGB). 2-14 urte



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA
IEE (REM) BATXILERGO TEKNIKOAK eta
LANBIDE HEZIKETA MODULOAK. 14-19 urte.



BATXILERGO INSTITUTUA
BBB (BUP) eta UBI (COU). 14-18 urte.



ANGIOZARKO ESKOLA
ESKOLAURREA eta OHO (EGB). 2-14 urte.

• **D, B eta A EREDUAK:** D DENA EUSKARAZ / B ELEBIDUNA / A GAZTELERAZ, EUSKARA IRAKASGAI BAT IZANIK.

• **ARLO GUZTIETAN ESPEZIALIZATUA:**

IRAKASLE ESPEZIALIZATUAK, LIZENTZIATUAK ETA TEKNIKARI PROFESIONALAK

• **BEHAR DEN GUZTIRAKO PRESTATUA ETA HORNITUA:**

LABORATEGIAK, LIBURUTEGIAK, INFORMATIKA-GELAK, IKUS-ENTZUTEKO GELAK, TAILERRAK...

AURREMATRIKULATZEKO EPEA:

SAN MARTIN IKASTETXEA: MARTXOAREN 1etik 15era (2 URTEKO GELA, AURRESKOLA, OHO)

BATXILERGO INSTITUTUA ETA LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA: MAIATZAREN 3tik 14ra.

2 URTETIK 19 URTERA ARTEKO EUSKAL HEZKUNTZARAKO BIDEA

MATRIKULA DOHAINIK!!

Ekologia

Ekologista izateari buruz


- Modan al dago ekologismoa?

- Ez, inoiz ez da egon. Egon dena izan da, naturarenaganako hurbilketa bat gizartearen aldetik, behar bada errespeto gehiagorekin; eta honen ondorioz baita merkatarien hurbilketa bat ere. Hori da gauza bat eta ekologismoa egitea beste bat. Ekologismoak lana dakar eta zenbait egoera tristeri aurre egin beharra. Bera- ren betebeharra gizakia- ren eta inguruaren erres- petoan ditu oinarriak. Gure gizarteak ez du ohi- tura haundirik gai hone- tan.

- Zein da ekologis- moaren egoera eta etorkizuna?

- Hemengo ekologis- moa hasi berria eta landu gabea da oraindik. Gai- nera argi geratu behar da talde ekologistek ez di- tuztela biltzen filosofia honekin datozen pertso- na guztiak. Bestalde, eko- logismoaren barnean di- bertsitate handia dago pentsakera eta funtzio-

natzeko eratan eta hori oso aberasgarria da. De- na dela, ekologismoak inoiz ez du dominarik ja- soko, bere papera asko- tan ez da gustokoa interes askorentzat, batez ere ekonomiko hutsentzat. Etorkizunari dagokionez, gizartearen aspektu guz-



Iñaki MADINABEITIA
(ekologista)

tiak orokorrean eram- go duten garapenarekin bat joango da.

- Eta administrazio- aren papera?

- Herri administrazio- etan batez ere, ekologis- moak proposatutako

"Ekologismoak inoiz ez du dominarik jasoko, bere papera askotan ez da gustokoa interes askorentzat"



Mendia Bizirik Taldeko lagun kuadrila.

konponketak poliki-poli- ki onartzen hasi dira; in- guruarenganako kultura berri bati irekitzen hasi zaio.

- Nola gaude?

- Gutxika-gutxika gau- zak hobetzen doaz. Baina ekologismoa ganoraz ezagutu eta landu gabe atzeruntz bultza egiten duenik ere bada. Hauet- ekologismoa topikoz be- tetzea gustatzen zaie (de- na berdea nahi dutela, animali eta landareak gi- zonen gainetik jartzen di- tuztela... eta antzerako xinplekeriak).

Beti sortuko dira mo- dernismo edo errealismo faltso baten izenean, ho- bekuntza hauek gutxies- ten dituztenak, baina gu optimista gara.

- Konpatibleak dira gure bizimoduak eta ingurunea babestea?

- Bai eta ez. Arazoak konpontzen hasteko, etxeko, herriko, gertuko arazoez arduratzen ikasi beharko dugu lehenen- go. Gainera gehienetan ez da behar diru mordo edo teknologia berezirik. Irtenbideak jarrera per- tsonalen aldakuntzatik etorriko dira batez ere.

- Zer beharrekin aurkitzen da inguru- aren babeskuntza?

- Gauzak hobeto egi- teko eta konpontzeko be- har nagusia, hontarako borondatea izatea da, ba- tez ere.



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA



Zerrajerako langileei agur esan ondoren, beste batzuren zai dago "laminazio zaharra".

Zerrajerako labegaraiak altzairuzko erraldoia

Zerrajera lantegiak **funtzionatzen jarraituko balu**, datorren ekainean **beteko lituzke 90 urteak. Baina duela 5 urte erabat gelditu zuen bere jarduera eta orain, bota egin dute, urte askotan gure herriko fabrikarik garrantzitsuena izandakoaren pabiloirik inportanteenak, bertan industrialdea egiteko asmoa baitago. Hainbat langileren izerdia ezagutu duen lantegiari buruz hitz egiteko bertan lanean aritutako 3 lagunerekin izan gara.**

Fernando Azkarate, Carmelo Mendibil eta Joseba Azkaratek 40 urte baino gehiago eman dituzte Union Cerrajera lantegian. Lehena salmenta arduraduna, bigarrena per-

tsional arduraduna eta azkenaren mantenimenduan aritu izan dira 40ko hamarkadaren bukaeratik duela 5 urtera arte Zerrajerak jabe berriak hartu zituen eta. Hasi zirenean lan guztia eskuz egin

behar zuten. Lantegian beroa eta gasa ziren langilearen etsairik nagusi-enak.

50eko hamarkadan Zerrajeran 1.200 langilerekin 100 mila tonelada altzairu egiten zituzten.

Azken urteetan, berriz, 400 langilerekin 400 mila tonelada ateratzen dituzte. Labegaraietako lantegi ezagunaren lehen izena Bergara, Jauregi, Restusta y Cia izan zen. "Bergarako fabrika 1904. urtean zabaldu zuten. Orduan Arrasaten altzairua transformatzeko lantegia zegoen eta altzairua Bergaran egin eta Arrasaten transformatu egiten zuten. Labeetarako eta elektrizitatea sortzeko ura Uritxatik ekartzen zen, kanal baten bidez. Lehen urte horietan Siemens labeak erabiltzen ziren. Gasarekin funtzionatzen zuten eta ezin ziren gelditu" dioskue hainbat urte Zerrajeran emandako 3 lagunek.

Labeak ezin zirenez gelditu, langileek errelebotan egin behar izaten zuten lan. Asteleheneko goizeko 6etatik igande goizeko 6ak arte jo ta ke ari ziren lanean, baina txapan lanean zebiltzanak igandetan ere lanera joan behar izaten zuten. Eguneko 1948an batzuk 14 pzta eta besteak 18 pzta. irabazten zuten. Zerrajerak txatarra eta beste gauza guztiak "kupoan" erosi behar zuen. "Estatuak tope bat jartzen zigun eta hortik ezin genuen pasatu. Espainian ez zegoen burdinik eta estatu osoan zehar saltzen genuen, eskutatik kentzen ziguten. Gerra

KALEGOI, 19

☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA

BERGARA

•Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa•

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK:

Amillaga 1
(B pabiloia)
BERGARA


**Iturkintza
Berogintza
Gasa**

☎ 76 28 04

ostean Espainian erai-kuntzak gora egin zuen eta burdinaren beharra zegoen, ordukoa da En-sidesa lantegia ere" dio Joseba Azkaratek.

Garapen teknologikoaren menpe

Industriaren garape-nean berrikuntza teknologikoak izugarriko garrantzia izan du eta Zerrajeran ere aurrerakuntzek lantegiaren jardura baldintzatu dute. 1964.-enean ikatza behar zuten labeak utzi eta labe elektrikoak sartu zituzten. "Ikatza orain Kiroldegia dagben tokian pilotzen zen eta mendi bat zirudien. Ikatzarekin ga-



Aintzina langileek 200 kilotako altzairu totxoak eskuz erabili behar izaten zituzten.

sogena lortzen zen labeak berotzeko. Lan baldintzak oso txarrak ziren, gasez gain langileek burdina labeetara eskuz

eraman behar izaten zuten eta oso gogorra zen" dio Fernando Azkaratek.

Lehen adierazi bezala 1964.ean 25 tonako bi la-

be elektriko jarri zituzten. Horrek ikatza baztertuen eta labeak berotzeko fuel-oila erabiltzen hasi ziren. Poliki-poliki langileen lan fisikoa ere alde batera lagatzen hasi zen, baliabide mekaniko berriei esker. Horrekin batera Italiatik ekarritako tren berri bat jarri zuten eta berari esker Espainia osoan leihoentzako burdin berezia egin zuten arrakasta izugarria izan zutelarik. Baina berrikuntzek espazioa behar zuten eta 1970.enean lantegia beste aldera aldatzen hasi zen. "Orain botatzen ari diren pabiloiak zabortuak gelditu ziren eta bidearen bestaldera pasatu zuten lantegia. Gaur egun lan fisikoa ia desagertu egin da, ordenadoreekin botoi bati eman eta ia dena eginda dago. Lehen, esate bate-

Los traidores...

Lehengo langileen etsairik nagusienetakoa beroa zen eta hiru lagunek adierazi digutenez langileentzat ura beharrezkoa zen. Lantegi ondoan estazioko apeaderoan, bazegoen ura, baina oso gogorra zenez kalte egiten zien langileei. Baso zabal inguruan metal urezko iturri bat dago eta handik ekartzen zuten ura. Uda partean nominan zeuden 25 langilek 30 litrotako ur barririk eramaten zituzten iturritik lantegira. Langile horiek Zerrajeran "Los Traidores de Agua" ezizenaz ziren ezagunak. Ura Zubiaurretik ere ekartzen zuten eta handik urez betetako barririk ekartzeko karretilak erabiltzen zituzten, baina fabrikakoek karretilen falta somatu zuten. Laister bilatu zuten horren arrazoia, langile bat karretila hartu eta ur bila joaten zen, baina bueltatzerakoan, urez betetako barrika karretilan eramane beharrean sorbaldan ekartzen zuen. Normala zen langileak lanean zeuden bitartean Zabalanera ardo trago bat hartzera joatea. Alemanak etortzen zirenean, esan digutenez, harrituta gelditzen ziren.

LARRAÑAGA eta ZUBIA
Banatzaileak
 Errioxako ardoak, olioak, esnea, lejiak...
 Martokua 32, tfnoa: 764594

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
 Kafea da gure berezitasuna
 Zubieta 26, BERGARA

BERGARA
Karrozeriak
 Txapa - Pintura
 Zubieta, 46 BERGARA
 ☎ 76 12 31

rako, altzairua eskuz enpaketatuta behar izaten zen eta 100 kilo inguru enpaketatzen ziren eskuz" dio Mendibilek.

Berrikuntzekin langile kopurua jeitsi egin zen eta batzuk Arrasatera joan behar izan zuten.

Auzoa lantegiari lotuta


Zerrajerak 1.200 langile izan zituen eta lantegiaren inguruan bizi zen Labegaraieta auzo osoa. Fabrikak langileentzako etxeak eraikitzeaz gain, maistrak ekartzen zituen eskolara, abadea elizara, medikua, ekonomatua, arotza, iturkina, elektrikistak, etb. Hiru lagunek adierazi digutenez fabrika "paternalista" zen eta horren eraginez langilearen portaera eta lan egiteko era gaurkoarekin

konparatuz guztiz ezberdina zen. "Lantegi ondolik txirrindulari lasterketa bat pasatzen zenean lana utzi eta karrera ikustera joatenginen. Lanera jateko makailua eta danetik eramaten genuen. Bazegoen langile bat goizeko 6etatik 2ak arteko erreleboan zebilena, zenbat botila ardo eta zenbat puro erretzen zituen apuntatzen zituen. Horrek gizentasuna adierazten zuen eta. Labean egiten zuen lan eta han 60 graduko tenperatura zegoen. 1949an aleman eta frantziar ugari etorri ziren lantegira eta frantziar bat harrituta zegoen lanean jaten genuenaz. Berak ogitarteko batekin eta urarekin nabikoa zuen" esan digu Joseba Azkaratek.

Garai haietan grebak

ere egiten zituzten eta arrakastatsuenetarikoa 1955koa izan zen. "28 egun egin genituen greban; lan baldintzak txarrak baziren ere, baina

ez zen hori grebaren motiboa, diru gehiago eskatzen genuen eta etorkizunean eragin handia izan zuen orduko mugimenduak" dio Carmelok.



Ezkerretik eskumara, Joseba Azkarate, Carmelo Mendibil eta Fernando Azkarate, aintzinako kontuak gogoratuz.

IPINTZA BATXILERGO INSTITUTUA

Tfnoa: 76 31 42 Faxa: 76 06 80

- **BATXILERGOA eta UBI.**
- **3 EREDUAK: A, B, eta D.**
- **BATXILERGOKO AUKERA GUZTIAK: zientziak, letrak...**
- **FRANTSESA, INGELESA.**
- **IRAKASLEGO ESPEZIALIZATUA.**
- **PSIKOLOGIA DEPARTAMENDUA.**

94/95 ikasturterako aurrematrikula epea maiatzaren 4tik 18ra.

KALITATEZKO IRAKASKUNTZA PUBLIKO ETA DOHAINA

EUSKALDUNON

J A I A 9 4



MAIATZAK 15 AMASA-BILLABONA

EUSKALDUNON Egunkaria

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK - KUKUBILTZO -
DULTZAINEROAK - TXARANGAK - HAUR JOKOAK - DANTZARIAK -
HANKAPALOAK - ERRALDOIAK - TRIKITILARIAK - TXALAPARTARIAK -
BERBENA - ESKOLAKO UME LASTERKETA - HERRI KIROLAK - GAZTEEN
ESKUPILOTA TXAPELKETAREN FINALA - GAZTEEN JOKO GARBI
TXAPELKETAREN FINALA - HERRI BAZKARIA - MAIXA ETA ITZIAR -
ROCK KONTZERTUA: TAPIA & LETURIA - ANJE
DUHALDE - EXKIXU - BERTSOLARI GAZTEAK

Mugak zehazten

Iñigo Ramirez antzuolarra izan da kaleratu berri den Antzuolako maparen arduradun nagusia. Toponimia biltzeaz eta lan guztia koordinatzeaz bera arduratu da eta mapa kartografikoa, berriz, Etnogintza enpresak egin du.

- Noiz hasi zinen Antzuolako mapa egiten?

- Orain dela 5 urte ekin nintzen lan honekin. Antzuolako mapa egin nuen, baina kaleratzeko kartografiaren beharra zegoen. Lan hori egiteko Etnogintza enpresarekin jarri ginen harremanetan eta bertako langileak diren Luis Mari Zaldua eta Luis Mari del Barriok egin dute lana. Aurrekontua 1.800.000 pzta.koa izan da eta Udalak Goizperren laguntzaz atera du.

- Ze aspektu landu

Iñigo Ramirez Antzuolako maparen egilearekin berriketan

dituzue mapa honetan?

- Mapak bi alderdi ditu. Lehenbizi Antzuolako toponimia bizia (baserritarren eta herritarren ahotan dagoena, hau da bizi-rik dirauena) landu dugu. Hor baserriak, ermittak, erroak, oroigarriak edota monumento megalitikoak biltzen dira. Guztira 500 toki izen. Bestalde, herri gunearen plano bat ere egin dugu eta hor herriko alderdi zaharreko jatorrizko izenak jasotzen ditugu (Migelenekua, Apaizanekua...). Honekin batera, mapan herria ezagutzeko 4 ibilbide agertzen dira.

- Mapa argitaratu ondoren, beste asmorik ba al duzue?



Antzuolako mapan, Antzuolako mugak ondo zehaztuta agertzen dira.

- Bai, Idolaz kultur taldearekin eta Arrola mendizale taldearekin harremanetan jarri gara mapari erabilgarritasun praktikoa emateko. Arrolak toki bakoitzeko ibilbideak markatuko ditu eta Idolazekoek toki izenak jaso eta karteltxoak jarriko dituzte. Ibilbide bakoitzeko foileto edo liburuxka batzuk argitaratzeko asmoa ere badugu.

- Antzuolak dituen mugak zehazterakoan

izan al duzue sorpresarik?

- Arantzaleku edota Amezti Berri Diputazioko mapetan Bergarakoak bezala azaldu izan dira urtetan. Horregatik Zalduak izandago hanka sartzea zergen kontuaren inguruan. Une hau aprobetxatuz, esan nahi dut bi baserri horiek mapan Antzuola barruan azaltzen direla eta ez da aipatzen Bergarari zergak ordaindu diotenik.

Hankasartze polemikoa

Pasa den apirilaren 5ean DVk Luis Mari Zaldua maparen egiletariko bati elkarrizketa bat egin zion. Bertan Zalduak Amezti Berri eta Arantzaleku baserriak Antzuolakoak izan arren, zergak Bergarako Udalarari ordaintzen zizkiotela adierazi zuen. Bergarako Udalak hori gezurra zela ziurtatu eta Antzuolako Udalarari idatzi bat bidali zion adierazpen horiek errektifikatzeko eskatzen. BERRIGARA, Roke Iñarra, Antzuolako alkatearekin harremanetan jarri da eta berak esan digunez gure herriko Udalak arrazoia du. Horrexegatik Iñarrak Zalduari dagoeneko eskatu dio bere adierazpenak errektifikatzeko. Beraz arazoa konponduta dago eta Arantzaleku eta Amezti Berri beti izan dira Antzuolakoak, nahiz eta zenbait mapetan Bergarakoak bezala agertu, eta beti ordaindu izan dituzte zergak Antzuolan.

"Amezti Berri eta Arantzaleku baserriek ez dute Bergarako Udalean zergak inoiz ordaindu"

Berrigazte

ikasleen orriak

B	A	L	M	N	S	O	P	D	R	E
S	M	B	I	G	C	H	E	O	U	G
E	K	A	R	M	O	S	T	M	X	U
G	A	J	R	U	E	G	U	E	N	A
U	U	X	L	T	I	O	R	K	M	S
A	T	A	H	E	I	G	U	I	A	T
K	A	S	C	G	B	T	D	A	X	E
I	P	K	E	X	Z	M	Z	S	L	N
T	A	S	T	E	L	E	H	E	N	A
Z	S	X	X	L	E	B	D	H	N	K
A	L	O	R	Z	B	I	Z	O	H	A

Bergarako euskeran berbetan badakizu? Ba hasi zaitte hizki zopa hau betetzen, asteko egunekin.

MAITASUN ESKUTITZAK

Amodiozko ipuiak ditut irakurtzen, beti ere nere neskaz gogoratzen, bere begiekin egunero zorutzen, ohera joaterakoan karta bat idazten, goizean goiz buzoira botatzen, neskak irakurri eta ohe gainean flipatzen. Hurengo egunean musuak ematen, eta hemendik aurrera asko maitatzen.

FERNANDO LASKURAIN
IKER RETOLAZA. 6. MAILA.

ELIZA MADARIKATUA

Orain dela pare bat urte Aretxabaleta eta Eskoriatzak izugarriak iskanbila sortu zuten Deba Garai osoan. Eskoriatzak bere herrian eliza egiteko tokirik ez zuela eta Aretxabaletarekin eztabaidatu eta berri herrien artean Aretxabaletako eta Eskoriatzako lur txiki batzuk hartu eta eliza zoragari dotore eta garesti bat egin zuten.

Baina eliza egin ondoren, norena zen eliza? Elizara jendea joaten zen meza entzutera, Eskoriatzakoak eta Aretxabaletakoak. Palko moduko zerbait ere bazegoen, eta Obispoa hil zenean Aretxabaletakoak eta Eskoriatzako alkateak joan ziren. Tokia batentzat bakarrik zegoen eta Eskoriatzakoak bera eseri behar zela palkoan esaten zuten, Aretxabaletakoak berriz bera eseri behar zela. Ertzaina ere etorri zen eta entierroa suspenditu egin zuten. Orain bai zela galdera zaila erantzutea, norena zen eliza, Aretxabaleta ala Eskoriatzakoak? Akordu legal batera heldu ziren, eliza madarikatu horretan bi eliza egitea. Erdian pareta bat jarri zuten. Eskoriatzak meza ematen jarraitu zuten, baina Aretxabaletak Eskoriatzakoak amorrarazteko diskoteka martxoso bat muntatu zuten. Egunez ez zuten diskoteka zabaltzen baina gauetz, izugarriak jaleoa sortzen zen. Eskoriatzakoak lasai-lasai meza ematen jarraitu zuten. Telebistatik ere joan ziren hango guda telebistazera.

Urteak pasatu ziren eta dena berdin zegoen. Aretxabaletakoak jaialdi batzuk egunez egiten hasi ziren. Orduan istiluak sortzen hasi ziren. Meza ez zela entzuten e.a...

Berriz ere juizio bat egin zuten erabaki tinko bat hartzeko. Eliza ezetz jakin zer erabaki hartu zuten? Eliza dotore eta baliotsu berriz Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udalen laguntzaz bota egin behar zutela erabaki zuten. Hainbeste istilu ezertarako ere ez!! Horrela aurrera Aretxabaleta eta Eskoriatza itxuraz behintzat, ondo konpondu izan dira.

JON SANTXEZ. 6. MAILA.

Txistea

Igotzen die bi tipo Everestera eta hasten die kaka eitzen, eta esaten dau batek:

- Mekauen!, papela ahaztu jakuk!

Eta bestiak:

- Lasai! Nik buruz jakixat eta kaka eitzen.

ARITZ MILIKUA, AITOR LAMARIANO, IGOITZ
GABILONDO ETA DENIS ARMENDARIZ.

ARANZADI IKASTOLA

12. ZENBAKIA

LAUTIK BI ONDO.

EZETZ ASMATU DANAK LENENQUAN

- A. Zuek juan leikezate baserrira
- B. Zuek juan zeinkie baserrira
- D. Zuek juan leikezue baserrira
- E. Zuek joan zaitezke baserrira

- A. Gu nobixuakin urten geinke
- B. Gu nobixuakin urten leikega
- D. Gu nobioarekin irten gaitzke.
- E. Gu nobixuakin urten leikedou.

- A. Nere lagunak etxian gelditu leikedia.
- B. Nere lagunak etxian gelditu leikedabe.
- D. Nere lagunak etxian gelditu leizke.
- E. Nire lagunak etxian geldi daitezke.

- 3. D eta E
- 2. A eta E
- 1. B eta E

AUKERA ZUZENAK:

MAITANE URIBE, ERIKA ITURBE ETA
AINARA ALTUNA. 6. MAILA.

BERGARAKO JAIETAN ZER?

Bergarako jaiak datozela eta, gazteek gauza asko hobetzea espero dute: horietako bat, barraken balioa gutxitzea da; beste bat, jai egun gehiago egotea, etabar.

Bergarako jaiak gustokoak ditugunez, zerbait gaizki egitean gurasoek, zigor bezala, egun horiek etxean igarotzea agintzen digute.

Dantzarako plazan ez dago lekurik, beste toki haundiago batean egitea komeni da. Adibidez, Seminarioan.

Guretat barrakak ondo daude, baina txikientzat... Txikientzat bi barraka eta nahiko, ezta? Ba ez, txikiek nagusien barraketan ibili nahiko zuten, baina beldurra dute. Beraz, noria txikia, "La Rana" ren ordeztu, hegazkinak, etabarrak beharko lituzkete.

Pazkoetan zezen plaza jartzea eskatzen dute, baina zezenak hiltzen dituzte. Eta hori zer?

Hemen badago tradizio bat beste herri batzutan ez dagoena, Bitorianatxo jeitsi eta igotzea. Jende nagusiak zergatik ez ditu brusak jazen? Zer uste dute, erridikulua egin behar dutela? Gure ustez ez, eurak ere parte hartzen dute Bergarako jaietan.

HAU ENTZUN ONDOREN, EA ANIMATZEN DIREN! ONDO PASATUKO DUZUE! ANIMATU!!

NORA PEDREJON, AINHOA UNAMUNO, AMAIA ORTIZ
DE URBINA ETA AINHOA CARRILLO.

ANDERENOARI PELOTA SARTZEKO 10 AHOLKU

1. Familia ondo dabilen galdetu.
2. Zerbait erortzen zaionean zeuk jaso.
3. Onena zure familiako baten laguna izatea bera.
4. Orrazkera eta jazkera polita duela esan.
5. Famoso baten itxura duela esan.
6. Bere egunean erregali bat oparitu.
7. Mantxaren bat baldin badu garbitu.
8. Berarekin asko hitzegin.
9. Seme txikirik baldin badu, begi ederrak dituela esan egiozu eta bere antza duela.
10. Txistek eta herriko kotilloak kontatu iezaizkiozu.

OHARRA: Aholku hauek jarraitzen badituzu, BIKAINAK seguru.

ANDONI RODRIGUEZ, ANDONI ARRIETA,
ERLANTZ OLABARRIA.

Asmakilloak

Bi mendiren arteko tiro zatatsua,
sudurra isteko moduko usaintsua.

PUZKARRA

Ez nauzu inoiz harrapatuko nahiz eta ibili
nire atzetik.

Ez naiz kenduko zure ondotik.

Zer da?

TTAZLI

ARITZ MILIKUA, AITOR LAMARIANO, IGOITZ
GABILONDO ETA DENIS ARMENDARIZ.

Maiatzaren Lehena, jai eguna ala erreibindikazio eguna?



Moises Elorza
43 urte, langilea

Niretzat batez ere jaieguna da, noizean behin manifestazioren batean edo izan naizen arren.



Mariasun Baladron
20 urte, ikaslea

Jaieguna. Beti hartu dut horrela, ez dut uste manifestazioetara eta joateak merezi duenik ez baita ezer lortzen.



Roman Zenitagoia
25 urte, langilea

Jaieguna. Maiatzaren lehena ez da egun berezia niretzat.



Lourdes Barrutia
44 urte, langilea

Langileek euren interesak defenditzeko eta aldarrikatzeko eguna da nire ustez, beti izan da horrela.




Pedro Maria Lopez de Dicastillo
46 urte, langilea

Maiatzaren lehenean ez dut erreibindikazio berezirik egiten, niretzat egun normala da, jaiegun bat.



Libe Txintxurreta
25 urte, ikaslea

Erreibindikatzeko eguna da nire ustez eta gainera gaur egungo egoera larria kontutan hartuta, oraindik arrazoi haundiagorekin.



Gipuzkoako Espezialitate Odontologikoetarako Zentrua, E.M.

Centro de Especialidades Odontológicas de Guipuzcoa, S.L.

Espezialitate guztiak

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia Finkoak
- Protesiak
- Endodontzia
- Umeak, gauzaeztanduak, etab...

Zure hortz-osasuna zaintzen laguntzen dizugu.

BERGARAKO KLINIKA

Simón Arrieta, 3-2 B
Tf. (943) 76 38 54

ARRASATEKO KLINIKA

Iturriotz, 7 behea
Tf. (943) 79 73 88

ZUMARRAGAKO KLINIKA

Soraluze, 1-1 ezk.
Tf. (943) 72 46 47



Askatasunaren egunsentia

Zuriak Hegoafrikara joan zirenetik, hiru mendetako zapalkuntza jasan behar izan dute beltzek. Azken hauek biztanlegoaren %75a izanda ere, aste honetan izan dute hauteskunde batean parte hartzeko lehen aukera.

"Pertsona bat, botu bat" aspaldiko esaldi ezaguna paradoxa bat da gure mundu honetako herri batzuetan. "Pertsona bat, botu bat" esaldiak egunkarietako baina, historiako liburu batetik ateratako kontua dirudi. Horrela behintzat sinesgarriagoa litzateke. Herri "zibilizatueta" biztanleak munduaren zentrua garelakoan gaude; guk beste arazo inork ez duelakoan. Baina XXI. mendearen atarian gaudela, botoa ematea bezalako oinarrizko eskubideen alde borrokan ari direnak ere badaude.

Honela, Parlamentuak "kamara zuria" bezala pasa den astelehenean ospatu zuen azken sesioa. Eta asteartean eman zitzaizen hasiera hauteskunderi. Hauteskunde hauek Afrikar Kongresu Nazionalako hautagai den Nelson Mandela da lehendakari zarako hautagai nagusia, beltzak bait dira gahiengoak.

Nahiz eta beltzak gehiengoak izan eta beraien herria izan, orainarte benetan beraiena izan den gauza bakarra miseria izan da. Gosea, indarkeria eta heriotza eguneroko gauza izan dute. Baina ez da horrela izan oinarrizko askatasunekin. Nahiz eta hauteskunde hauek pauso garrantzitsu bat izan, kontutan izan behar dugu oraindik industria eta lurra zurien eskuetan daudela. Hau honela egonda, aurrerantzean ere zuriak izango dute ekonomia eta nekazaritzan nagusitasuna. Honela izango da, oraingoz behintzat. Hau dela eta, gauzak aldatzen joango direlakoan historiari konfidantza botu bat ematea baina ezin dugu egin.

Ainhoa LETE



Badatoz badatoz

Jakina da dagoeneko, hilabete bat baino gutxiago falta dela jaixak heltzeko. Hasi gara pentsatzen gazteok gehienbat, jaixetako blusa armaixotik ateratzeko ordua noiz helduko dan, eta Bitorianatxoren jeitsiera nola ospatuko dugun. Gehienetan, kanpoan ikasten gabiltzanontzat ez dira oso egun aproposak izaten baina eguntxo batzuk jai hartzeak ez dio inori kalterik egiten, hori bai, norberak dituen azterketen datak beti kontutan hartu behar dira.

Bueno, azterketen gaia alde batera utziz..., ez dakit zuei ere berdin gertatzen zaizuen baina urtean zehar, txoznetan egoten den giroa, jende ezberdina ezagutzea, normalean egiten ez ditugun astakeriak egitea faltan botatzen ditut, eta noski egun aproposenak hauetxek dira, hori bai margen baten barruan.

Batuendako gehiago eta beste batzuendako gutxiago, bost egun hauek bitxitasun berezia daukate. Nolanahi ere, badira jaixen bukaeran gogoratzen ditugun hainbat eta hainbat anekdota, batzuk beste batzuek baino atsegina- goak baina neurri batean denak irripa batekin gogoratzen ditugunak.

Hau da hau, oraindik hilabete falta da eta banabil pentsatzen... bederatziretan unibertstatetik heldu, ondoren etxera jun eta liburuak bazterrean utzita...kalera!

Badatoz eta... etor daitezela, gustora hartuko ditugu, eta noski ez ahaztu Bergarako jaixetan ere ligatuin/k euskaraz, izan euskaldun!

Aitziber AZKONDO

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**BERGARESA
MARMOLERIA**

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte 8, BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxa: 76 04 77

KALEGOI, 19

☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriadarako pinturak
- Papel margotuarak
- Mokatetarako eta tapizatuak

ES oto istema *APBéniz*

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneiterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



50 urte apaiz

Donostiako Elizbarrutiak abade lanetan 50 urte bete berri dituen **Miguel Altuna** omendu zuen igandean, Gipuzkoako beste 13 apaizi egindako omenaldiaren barruan. Miguel Altuna Amezketakoa da, 1944. urtean etorri zen Bergarara eta Lanbide Hezkuntza Institutuko lehen zuzendaria izan genuen (beraren omenez bere izena jarri diote Institutuari). Igandean, Jose Maria Setien Donostiako Gotzaiak emandako mezaren ondoren, apaizen urrezko eztaiak ospatzeko bazkari bat izan zen. Miguel Altuna Donostian bizi da gaur egun eta igandean bertan 78 urte bete zituen. Zorionak!!

Don Miguel Altuna Lanbide Hezkuntza Institutuak eskeini zion omenaldian.

Txapeldunordea

Agustin Toledo bergararra 2. postuan sailkatu zen Madrilen jokatuak Gutxituendako Espainiako Boccia (petankaren antzeko jokoa) Txapelketan. Horrez gain, Agustinek taldeka hirugarren postua eskuratu zuen Mario Rodríguez eta Maite Etxezarretarekin batera. Orain, Espainiko Atletismo Txapelketarako pisu jaurtiketa probarako sailkatzeko ahaleginak egingo ditu.



Agustinek txapelketa bikaina burutu zuen, banaka 2. eta taldeka 3. postuak eskuratuz.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 23



Izotzetan patinatzerak eskurtsioa

Larunbatean **JARDUNeko Gazte Taldeak** antolatutako Txorimalo Lehiaketan parte hartu zuten gaztetxoek eskurtsio bat egin zuten sari gisa. Guztira, 58 gaztetxo eta 4 laguntzaile izan ziren Gasteizen eskurtsioan eta bi orduz, Mendizorrotzan, izotzean patinatzeko aukera izan zuten. Ondoren hockey partidu bat ikusi eta zazpi t'erdia aldera Bergarara itzuli ziren autobusez. Bi ordu patinatzen ibili ta gero ondo egingo zuten lo larunbatean...

Kilometroak 94

Urriar Legazpin ospatuko den **Kilometroak-94**rako materiala saltzeko denda zabalduko da Alargunen Elkartearen ondoan dagoen lokalean. Denda zabalik izango da asteleheneetik ostegunera bitartean arratsaldeko 5etatik 6 t'erdiera bitartean eta bertan Kilometroak 94-arekin lotuta egin izan diren hainbat objektu jarriko dira salgai.



Eguraldi ona datorrela eta, kamiseta dotoreak, txapelak etab. luze bat eskuratzeko aukera ezin hobea.

Zertan dibardute ba?



Jon Legorburu

Arrasaten Injenieritza Teknikoa ikasi zuen 27 urteko antzuolarra Mexicora joan zen asteartean. Legorburu Beasaingo C.A.F. enpresan ari da lanean orain dela 4 urtetik eta enpresa horrek Mexico D.F.ko metrorako egin dituen trenbideak entregatzeko arduradun bezala han izango da uztailera bitartean; "dane-ra 15 tren egin dizkiegu eta hemendik uztaileira 3-4 bat jarriko dira martxan. Trenek 30 bat urteko bizitza izaten dute. Eginiko tren berriak, teknologia hobetuta, aurrekoen antzerakoak dira". Mexico D.F.k 21 milioi biztanle ditu eta egunean 5 milioi metroan ibiltzen dira. C.A.F.ek Madril edota Bartzelonako metroko trenbideak eginak ditu.


Irizar, 2
☎ 76 14 95
JAUJA KIROLAK

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi, BERGARA

TENERIFERA!!
Bolu Gimnasioan hilabeteko kuota ordaintzeagatik, Kanarietan bi pertsonarentzako astebeteko egonaldia (bost izarretako apartahotelean) doan.
ZATOZ!!

Juanjo Arrieta

Juanjo Arrieta (50 urte), Banco Vitoriako zuzendaria dugu, 70eko hamarkadan Alkartu-Naiko presidente izan zen eta 35 urte eman ditu futboleko jokalaririk eta entrenatzaile lanetan, tartean Bergara, Alavés edota Eibarren.



"Egunkarrietan ekonomia orrialdeak irakurtzen ditut lehenbizi eta, kazetarien artean, Mariano Ferrerekin geratzen naiz. Ezagutu dudako futbolaririk onena Pelé izan da eta liga Deportibok eramango duela uste dut"

- Futbolak ala kutzak interes gehiago?
- Kutzak, interes profesionalagatik.
- Egunkarrietan, ekonomia ala kirol orrialdeak?
- Ekonomiakoekin hasten naiz.
- Kazetari bat.
- Mariano Ferrer.
- Hobby bat.
- Futbola eta mendia.
- Igo duzun azken mendia.
- Irukurutzeta.
- Eta inguruko politena?
- Gorla.
- Deportivo ala Barcelona?
- Deportivo.
- Eta liga nork irabaziko du?
- Deportibok.
- Athletica UEFA sartuko da?
- Baietz uste dut.
- Clemente ala Azkargorta?

- Clemente.
- Heynckes ala Toshack?
- Heynckes.
- Ikusitako futbol partidurik onena?
- Mexicoko finala, Argentina-Alemania (1986).
- Eta futbol zelairik ederrena?
- Anoeta.
- Izan duzun jokalaririk onena.
- Gómez de Segura.
- Munduko onena?
- Pelé. Eta oraingoan artean Laudrup.
- Nork irabaziko du mundiala?
- Alemaniak.
- 100 milioi tokatu ezker, lanean jarraituko zenuke?
- Bai.
- Eta zer erosiko zenuke?
- Etxea berriztuko nuke.
- Etxeko txokorik gustokoena?
- Sukaldea.
- Etxeko lanik egiten duzu?
- Bai.
- Zer ez zenuke sekula jantziko?
- Tanga bat.
- Bideoa ala argazki kamara?
- Argazki kamara.
- Filme bat.
- "El puente sobre el rio Kwai".
- Zein telebista kate ikusten duzu gehien?
- Euskal Telebista.
- Beldurra zeri?
- Gerrari, munduaren egoerari.



ARANE
BIDRIERA ARTISTIKOAK
Muralak, bidrierak, grabatuak, biselatuak, ispiluak eta era guztietako kristaleria egiten dugu.
 Iñigo Zabaleta
ZUZENKO SALMENTA
 Arane-Barrengoa baserria. Arane auzoa 20.570 BERGARA ☎ 76 20 56

Siaska
Dena zure haurrarentzako
 Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 99

ZAPELAITZ
Taberna
 Egunko menuak
 astelehenetik ostiralera
 San Lorentzo 25, BERGARA

JOSE LUIS
 eta
MIKEL
 URTEAGA, 6
 ☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

- Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa.
- Etxebarruen dekorazioa

Garnish
Bitxitegia
 San Pedro, 12 ☎ 76 03 57



umelaga

JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



Galde debalde

CARLOS ZENGOTITABENGOA

Aurreko Galde Debalden orain arte zergak Bergaran ordaindu eta aurrerantzean Antzuolan, dagokien udalerrian, ordaindu beharko duten bi baserrien izenak galdetzen genizuen. Baserri horiek **Ameztiberri** eta **Arantzaleku** dira, baina galdera gaizki eginda zegoen, bi baserriok betidanik ordaindu baitzituzte zergak Antzuolan. Kontuak kontu ontzat eman ditugu baserri horien izenak jarri dituzten erantzunak.

CARLOS ZENGOTITABENGOAri tokatu zaio aste honetako saria. Berarentzat izango da, beraz, **ZUMELAGA JATETXEAK** emandako sari bikaina. Zorionak **CARLOS**i eta besteek segi jokatzeko.

SANTOS

IRRATI-TB

SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA

Koloretako TB, bideoa, soinua,
elektragarriak, antenak, sukaldeak
altzariak, argiztapenak...

Masterreka 2, BERGARA
Tfnoa eta faxa: 76 26 10



JANTZIDENDA

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16



CARLOS ZENGOTITABENGOAK jaso du aste honetan ZUMELAGA JATETXEAK emandako saria.



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

Hurrengo Galde Debaldeko saria ARGAZKIk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Maiatz honek lora usain eta udaberri itxura ekarriko duen itxaropenarekin, ea behingoz apirileko lizun usaiak kentzen ditugun... Inguruko eta bertako jaiak ere hasiko dira, juerga zaleentzat zirkuito ederra antolatuko delarik. Jaiekin batera Bergaran beste aldaketa bat ere ezagutuko dugu, izan ere, maiatz bukaeran Berdura Plaza edo Azoka itxi egingo da, eta akordiorik badago, Azoka Plaza berria zabalduko da. Hauxe duzue aste honetako galdera:

Zenbat salmenta postu fijo daude momentu honetan Azokan?



izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egingo lirateke

1. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Madura IND. GOL	33	17	16	1	0	85	24
2. Angiozar	27	18	12	3	3	92	48
3. Errotagain	25	16	12	1	3	74	29
4. Tokieder	23	17	10	3	4	88	39
5. Usoa	20	17	8	4	5	56	44
6. Bar Canalejas	20	17	8	4	5	58	52
7. Mongatxurra	18	17	9	1	7	67	49
8. Bildurbarek LAM	18	18	10	0	8	80	74
9. Ogizun	17	17	7	3	7	73	52
10. Arloteak	17	17	7	3	7	48	56
11. Os Jardineiros	16	17	6	4	7	65	76
12. Guadalest	16	18	6	4	8	43	62
13. Akort Ariznoa	14	16	6	2	8	53	72
14. OH Zerezos	14	18	6	3	9	56	76
15. Nahikari Hool.	13	17	5	3	9	43	53
16. Ezinleike	13	17	5	3	9	44	76
17. Kriterium	10	17	3	4	10	43	62
18. Kriston Potruak	9	17	4	2	11	68	103
19. Soropotroak	8	18	4	0	14	48	75
20. Shaktale	8	18	3	2	13	39	101

2. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Arkupe	41	24	20	2	2	123	55
2. Kalimotxo	40	24	20	0	4	141	60
3. Ufala	39	24	19	1	4	118	50
4. Revienta	39	24	19	1	4	102	58
5. Ozaeta	37	24	17	3	4	149	61
6. Etxagi	36	24	17	3	4	149	78
7. Hartu Zamak	36	24	17	3	5	114	70
8. Uve Bikoitza	32	24	15	2	7	130	87
9. Eri	31	24	14	3	7	115	72
10. Amozkibar	29	24	13	3	8	100	66
11. Ari Ari	26	24	13	0	11	108	110
12. Iganekoak	24	24	12	0	12	85	97
13. Txipiron	23	24	9	5	10	66	73
14. Krai	22	24	11	0	13	94	98
15. Kirolzaleak	21	24	10	1	13	79	107
16. Paok San Juan	20	24	9	3	12	73	84
17. Matalascañas	19	24	8	4	12	66	86
18. Los Txupeta	16	24	7	2	15	60	87
19. Labegaraieta	15	24	6	3	15	45	119
20. EH Biterrak	14	24	5	4	15	57	97
21. Aldoka Maldoka	14	24	6	2	16	56	120
22. Pata Negra	13	24	6	1	17	61	128
23. Eusebio II	11	23	5	1	17	61	122
24. KK Usaina	6	23	4	1	18	49	164

emaitzak

Bildurbarek LAM	3 4	Angiozar
Guadalest	4 2	Shaktale
Soropotroak	5 6	OH Zerezos
Kriston Potruak	7 19	Madura
Ezinleike	1 5	Ogizun
Mongatxurra	3 1	Tokieder

hurrengo partiduak

• **LARUNBATA** •
kanpoan

10.00: Usoa-Ezinleike (Errotagain)
11.00: Errotagain-Akort Ariz. (Kriterium)
12.00: K. Potruak-Kriterium (Os Jard.)
13.00: Arloteak-Os Jardineiros (K. Potr.)

• **IGANDEA** •
kanpoan

9.00: Mongatxurra-Canalejas (Madura)
10.00: Madura-Nahikari Hool. (Usoa)
11.00: Usoa-Guadalest (Ezinleike)
12.00: Soropotroak-Ezinleike (Ogizun)
13.00: Errotagain-Ogizun (Soropotroak)
16.30: K. Potruak-OH Zerezos (Akort A.)
17.30: Akort Ariznoa-Tokieder (OH Zerez.)

emaitzak

Labegaraieta	0 2	Krai
Kirolzaleak	0 1	Pata Negra
Etxagi	3 8	Uve Bikoitza
Iganekoak	3 9	Ozaeta
Hartu Zamak	4 6	Eri
Txipiron	3 5	Revienta
Ufala	7 3	Paok San Juan
EH Biterrak	3 2	Eri
Hartu Zamak	3 3	Arkupe
Amozkibar	7 2	KK Usaina
Ari Ari	6 5	Matalascañas
Kalimotxo	7 2	Aldoka Maldoka

hurrengo partiduak

• **LARUNBATA** •
barruan

9.00: Iganekoak-Uve Bikoitza (Labeg.)
10.00: Labegaraieta-Arkupe (Kirolzaleak)
11.00: Ufala-Ozaeta (Eusebio II)
12.00: Eusebio II-KK Usaina (Ozaeta)

• **IGANDEA** •
barruan

9.00: Txipiron-Aldoka Maldoka (Krai)
10.00: Etxagi-Krai (Pata Negra)
11.00: Pata Negra-Los Txupeta (Paok)
12.00: Kalimotxo-Paok San Juan (Ari Ari)
13.00: Ari Ari-KK Usaina (Kalimotxo)
16.30: Amozkibar-Eri (EH Biterrak)
17.30: EH Biterrak-Eusebio II (Amozkibar)

Txinpartak

▼ Liga amaitze-ko bi jardunaldi bes-terik ez dira gera-tzen eta bukatzen denan, Txapelketa eskuratzeko play-offak eta mailaz igo edota jeisteko pro-mozio partiduak jo-katuko dira. Astirik baldin badago kopa ere jokatuko da.

Kontuak-kontu, lehen mailako bost lehenengoen artean sailkatzen direnak zuzenean lortuko dute txapelketa es-kuratzeko play offak jokatuko txartela. 6.etik 11.era sail-katzen direnen arte-an, eta elkarren kon-tra partidu bakarrera jokatu ondoren, hiru onenak sailkatuko dira play offetarako. Zortzi horietatik ir-tengo da txapelke-tako irabazlea.

Promozioa, ber-riz, lehen mailan 13.etik 16.era sail-katzen direnek eta bigarren mailan 5.e-tik 8.era sailkatzen direnek jokatuko du-te.

Golegileak

LEHEN

MAILA

1. F. Salinero (Ogizun) 43
2. I. Pagaldai (Angiozar).. 28
3. I. Mujika (Tokieder) ... 23
4. B. Jimenez (Kris. P.)..... 23
5. Arriaran (Angiozar)..... 21

BIGARREN

MAILA

1. Agirezabal (Kalim).... 61
2. Agirrebeña (Ozaeta) ... 59
3. J. Izuskiza (Etxagi) ... 54
4. J. Larrañaga (Eri)..... 49
5. Agirrezabal (Ozaeta) .. 43

Emakumezkoen futbito txapelketa jokatu da maiatzean zehar

Herri Olinpiada Batzordeak antolatuko du

Emakumeentzako futbito txapelketa antolatu nahi du Herri Olinpiada Batzordeak maiatzean.

Txapelketa maiatzean 7an hasiko litzateke eta partiduak larunbatean jokatuko lirateke Ipintza Institutoko patioan. Antolatzaileen asmoa txapelketako finala, Labegaraietako Futbito Txapelketako finalekin batera Kiroldegian jokatzea izango litzateke.

Txapelketan aritzeko ez da adin mugarik izango eta parte hartu nahi dutenek maiatzaren 6a (ostirala) baino lehen eman behar dute izena Etxagi, Pol-Pol edota Arrano tabernetan. Inskripzioa doan da eta taldearen izena, kamisetaren kolorea eta jokalariren zerrenda jarri behar dute parte hartu nahi dutenek izena ematerako

orduan. Herrian ez da horrelako txapelketarik inoiz izan eta antolatzaileek uste dute nesken erantzuna ona izango de-

la, kontutan hartzen badugu Bergara Kirol Elkar-teak baduela emakumezkoen futbol taldea (30 bat neska).

Herri Olinpiada Batzordeak, bestalde, joan zen udako Herri Olinpiadetako amaiera jaialdian antolatu ziren ekitaldiak norbaitek bideoan hartu bazituen, antolatzaileekin edota BERRIGARA aste-kariarekin harremanetan jartzea eskatu du.

Musika ere bai

Bestalde, maketa bat grabatzeko asmotan dabil Herri Olinpiada Batzordea. Asmoa, pasa den Gabonetan egin zen Play back lehiaketan parte hartu zuten taldeekin eta herriko beste talde batzuekin zinta bat grabatzea da. Maketa Bergarako jailetan, larunbatean, Bideberrin zuzenean grabatuko litzateke Fran Iturbere ardurapean. Play back lehiaketa irabazi zuten boskoteak, Iturbek Zabalotegin duen estudioan grabatuko luke.



Gero eta neska gehiagori gustatzen zaio futboleko jokatzea.

KIROL KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Lazkao

Preferente maila
Igandea, 17.00, Agorosin.

Bergara-Aitzgorri

Lehen mailako kadeteak
Larunbata, 17.30, Ipintza.

Bergara-Amaroz

Lehen mailako infantilak
Larunbata, 16,30, Ipintza.

SASKIBALOA

Aranzadi Ikastola-Almen

Infantil mutilak
Larunbata, 11.00, Seminarioa.

ESKUBALOA

Bergara-Deusto

Senior mutilak
Larunbata, 17.30.

Bergara-Aloña Mendi

Kadete mutilak
Larunbata, 19.00.

Bergara-Zarautz

Kadete neskak
Larunbata, 16.00.
Guztiak Kiroldegian.

PELOTA

- Afizionatuak

• Herri Arteko Txapelketa.

Bergara-Aretxabaleta

Ostirala, 21.00.

• Deba Arroa Txapelketa.

Bergara-Elgoibar

Asteazkena, 21.00.

Biak Udal Pelotalekuan.

• Elosuko Otaba Txapelketa.

Promesa mailako 3 partidu.
Igandea, 11.30.

- Profesionalak:

Aste honetan ez da pelota jaialdirik antolatu.

PALA TXAPELKETA

9.00: Narbazia eta Madariaga / Otaño eta Martinez.

10.00: Sanz eta Berroeta / Arroyo eta Manzanedo.

11.00: Garitano eta Lete / Azkarate anaiak.

12.00: Etxeberria eta Alberdi / Lizarralde eta Zangitu.

Igandean Osintxuko Frontoiak.



Arrasaten garaile

Ander Markiegi Sumofic Lokatza taldeko jubenil txirrindulariak igandean Arrasaten jokatu zen txirrindulari proba irabazi zuen. 245 partaide izan ziren irteeran eta amaieran, 40 txirrindulari inguruko tropel bat iritsi zen helmugara lasterketa buruan, Markiegi uberarrak sprintean irabazi zu- elarik. Era berean, talde bereko **Aitor Larrea** antzuolarra 3. tokian sailkatu zen Euskal Ligaren barruan Lakuntzan jokaturako proban. Bestalde, larunbatean 2. urteko kadeteentzako **XXXII. Labegarrietako Ziklismo saria** jokatu da arratsaldeko 4 t'erdietan. Txirrindulariek 63 kilometro bete beharko dituzte eta proba arratsaldeko 6ak aldera amaitzea espero da.

Dirulaguntzak igerilekuak berrizteko

Agorrosingo barruko igerilekuak konpontzeko dirulaguntzak emango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

94-97 lau urteko planaren barruan kirol instalazioei bideratzen dizkien dirulaguntzak direla eta, beste bost proiekturarako dirulaguntzak ere eskatu ditu Udalak baina ez ditu jasoko. Hain zuzen ere, Udal Pelotalekuaren konponketa egiteko, Ipintza futbol zelaian belar artifiziala jartzeko eta herriko hainbat ikastetxetako kirol instalazioak berrizteko (San Migel patronatoa zeneko frontoia eta Irala eta San Martin Ikastetxetako patioak) dirulaguntzak eskatu ditu Udalak. Zehazteke dago, oraindik, barruko igerilekuak konpontzeko obrak noiz hasiko diren, proiektua egin barik dago eta.

Piraguitak bikain

Beti Busti Kirol Elkarteak emaitza onak lortu zituen joan zen larunbatean Bidasoa ibaian jokaturako ur bizitako piraguisimo frogan. 1980. urtean jaiotakoen artean Igor Setienek 4. postua lortu zuen; Josu Mozosek, berriz, 8. postua eskuratu zuen eta Beñat Eguren eta Gorka Alberdi, 9. eta 10. sailkatu ziren. 1981. urtean jaiotakoen artean, osera, Gorka Fernandez 4. sailkatu zen, Eneko Balzategik 6. postua lortu zuen eta Mikel Otañok, 8.a.



KIROL EMAITZAK

FUTBOLA

- Prefente maila: **UPV 1-Bergara 4**
- Lehen Erregionala: **Bergara 1-Baskonia 0**
- Lehen mailako jubenila: **Bergara 3-Amara Berri 1**
- 2. mailako jubenila: **Aretxabaleta 7-Bergara 2**
- Lehen mailako kadetea: **Eibar 5-Bergara 5**
- 2. mailako kadetea: **Bergara 1-Urki 0**
- Lehen mailako infantil **Bergara 5-Idiazabal 1**

ESKUBALOIA

- Senior mutilak: **Bergara 22-Arrasate 17**
- Kadete mutilak: **Bidebieta 16-Bergara 25**
- Kadete neskak: **Bergara 20-Aloña Mendi 15**
- Gazte neskak: **Bergara 14-Arrasate 15**

SASKIBALOIA

- Jubenil mutilak: **Bergara 63-Athletico SS 48**
- Infantil mutilak: **Aranzadi 67-Elgoibar 31**

PELOTA

- Herri Arteko Txapelketa
- Infantilak: **Aretxabaleta 8-Bergara 18**
- Jubenilak: **Aretxabaleta 0-Bergara 22**
- Seniorrak: **Aretxabaleta 18-Bergara 22**
- Deba Arroa Txapelketa
- Infantilak: **Bergara 7-Elgoibar 18**
- Jubenilak: **Bergara 22-Elgoibar 7**
- Seniorrak: **Bergara 22-Elgoibar 11**

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

• Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
• Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

JOSEFINA

Espaloia 4, ☎ 76 35 38

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27



"Peña Kikio"

Gutxi izango dira Bergaran Kikio bezain pertsonaje famatuak. Eta horren adierazle da peña eta guzti izan duela. Simon Arrieta bera izan omen zen Peña Kikioren bultzatzaile nagusietako bat. Harrez gero Kikiok han-hemenka egin izan dituen hainbat ekitalditara jarraitu izan diote peñakoek, horretarako autobusak ere antolatuz.

Erretratua San Martzialen aterata dago. Atzeko pinu gaztea orain botata dago.

Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara:

Zutik: Joanito Torre, Altuna, Kikio, Isaac, Arenas-ko bi lagun, Sabin Gallastegi, Migel Lazkano, Jaber Arteaga, Jose Mari Larrañaga eta jarraian beste lau "Larrañaga".

Belauniko eta makurtuta: Alfaro, Txurruka, Garitano, Egaña "Pitia", Bilbao, Madariaga, Luis Unzurrunzaga, Etxebarria, Aitor Gallastegi, Albisua, Patxikin, Jose Mari Igartua, Arregi eta Inazio Zangitu.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Kikio*

BELENGUA

Taberna

Pintxoak, kafeak...

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

HARATEGIA - URDAITEGIA

Sebastian Imaz

**Bildotsa, txahala eta
oilazkoak**

Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4 EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

ETXEBIZITZA

Pisu amueblatua salgai Zabalotegi 1ean. ☎ 76 32 27.

Garajea salgai Santa Marinaran. ☎ 76 34 31.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Garajea (bi plaza) salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 52 55.

Zubiaurren **pisua alokatzen da**. ☎ 76 13 85.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua salgai Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauzez).

Pisua alokatzen da Zabalotegin. ☎ 76 33 93.

Pisua salgai Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

Garajea salgai Bolun. ☎ 76 39 33 (arratsalde).

Pisu amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauzez).

Pisua salgai Artzamedin. ☎ 76 44 60.

Etxea salgai Martokon. ☎ 76 00 93.

Garajea salgai Ibargarain. ☎ 76 36 69.

DENETARIK

Yamaha 600 motorra salgai. SS-4. 300.000 ppta. ☎ 76 49 43 / 17 64.

Kotxearen irrati-kaseta salgai (bi bafle). ☎ 76 37 29 (Martin).

Remolke-denda "Cabanon" salgai. ☎ 76 37 82.

Edertze aretoa traspasatzen da. ☎ 76 58 88.

Baserri bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

Peavey anplia eta gitarra. 60.000 pta. ☎ 76 53 55.

Errepiderako **bizikleta** (Vitus koadroa) salgai. Egoera onean. ☎ 76 64 29.

Paseozko Torrot **bizikleta** salgai, 13.000. ☎ 76 48 68.

Onix motorra (50 cc.) salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

BX-16 TRS kotxea salgai. SS-V, 150.000 pta. ☎ 76 48 23.

Montesa Cota 335 (SS-AF, 175.000 pta.) eta **Vespa 200** (VI-F, 60.000) motorrak salgai. ☎ 76 53 55.

Subijanaren sukaldaritza liburua eta 6 bideo (7.000 pta.) eta patin botak (5.000) salgai ☎ 761968.

Kanpin denda haundia salgai (45.000 pta.) ☎ 76 26 73 (gauzez).

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

Gas-Gas Enducross 250 **motorra**. ☎ 76 43 48.

60 l.ko **arrainontzia** salgai. Filtro eta berogailuarekin. ☎ 76 04 63 (gauzez).

Macintosh ordenagailu bat erosiko nuke (classic). ☎ (94) 658 27 72.

BMW motoa (K-100 RS) salgai. ☎ 76 12 64.

Game-boy bat salgai. 16 joku, 9.000. ☎ 76 48 68.

LANA

Makinaz edo ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 21 33 (Garbiñe).

Ingeles klaseak ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

O.H.O. eta **ingeles klaseak** (maila guztiak). ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 44 34.

Ingeles Filologian lizentziatuak, ingeles klaseak eman go lituzke. ☎ 76 17 36.

Ingelesezko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Haurrak zaindu eta etxe-ko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Emakume batek **etxe-ko lanak** edota **haurrak** zainduko lituzke. ☎ 76 27 24 (Dolores).

Matematika eta Fisika **klaseak**. ☎ 762457 (Josune).

Zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Hildakoak

Jose Ignacio Gomez Varona

apirilak 24, 60 urte

Vicenta Gabilondo Aristi

apirilak 25, 88 urte

Maria Teresa Muñoz Etxeberria

apirilak 25, 79 urte

Jaiotakoak

Judith Dovaio Gómez

apirilak 14

Irantzu Casanellas Alzelai

apirilak 22

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

SURPE
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
 - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



JANARIDENDAK

- Erosle Mazorriaga
- Izadi Dietetika
- Laskurain
- Txukuri
- Kabutzia Arraindegia
- Primi arraindegia

HARATEGIAK

- Igarza
- Imaz S.
- Lazpiur
- Leturia J. L.
- Leturia J.M.
- Rezola L.M.
- Urzelai
- Zurutuza J.M.

KIROLAK

- Aisor
- Bolintxo
- Enaitz
- Jauja

ELEKTRODOMESTIKOAK

- Biltoki
- Herran Etxea

- Radio Bergara
- Santos RTV
- Telkar
- Zaiazko

FERRETERIAK

- Ardatza Brikolaketa
- Gaztelu
- Gisasola
- Mujika

LORAK

- Ninika

PAPER, LIBURUDENDA ETA FOTOKOPIAK

- Elkar fotokopiak
- Idatzi
- Ikasle
- Ipuin
- Marco

ALTZARIAK

- Biltoki
- Edertu
- Guridi

- Lizar
- Rementeria

SUKALDEKO ALTZARIAK

- Haltzari
- Jakina

PERFUMERIA, DROGERIAK

- Alga
- Camacho
- Eguiluz
- Igaro
- Ugari

ERLOJUDENDAK, BITXITEGIAK, OPTIKAK, ARGAZKIDENDAK

- Arantza
- Etxeberria
- Argazki
- Kiñu
- Foto Sistema
- Irudi
- Manso Optika

OIHALAK ETA JANTZIAK

- Agirre
- Anezka
- Aranzabal
- Aroa
- Artazi
- Bergara Piel
- Ugalde Etxea
- Egizabal
- Ezpeleta Etxea
- Fernandez
- Gallastegi
- Juana Elgetarra
- Laket
- Nerea Lentzeria
- Lide
- Edurne Mertzzeria
- Gantxegi Mertzzeria
- Gracian Agirre Mertzzeria
- Igarza Artileak
- Itziar Mertzzeria
- Mirari Mertzzeria
- Ugarte Mertzzeria
- Phildar
- Pingouin
- Praxak

- Mujika
- Oihal
- Portu
- Siaska
- Subijai
- Edel Tapizeria
- Urkiola
- Yazki
- Yazki Gazte
- Zatoia
- Zubikua
- Maher
- Cristina

OINETAKOAK POLTSAK ETA BAZARRAK

- Agirrebeña
- Aldasoro
- Carmen Garza
- Garnish
- Lazkano
- Lombide
- Puxkin
- Retegi

ONDORENGO SARIAK ZOZKETATZEN DITUGU:

1. 250.000 pzta. 2. 100.000 pzta.

3. **SANTANDER** Banketxeak eskainitako sari berezia: 100.000 pzta. ko balioa duen pentsio plana.

Txartelak bezeroen artean maiatzaren 2tik aurrera banatuko dira.

Zozketa 1994ko uztailaren 3an San Martzialgo zelaian egingo da.